

Elgotbar - 1246. zenb.  
XXXI urtea - 2022-06-03



TOKIKOM

BARREN



# Koloreen eltzea

Cynthia Pazmiño

# G R E M I O E N GIDA

**ARROZTEGIA**

**Ulazia**

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albixuri industrialdea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



**ELEKTRIZITATEA**

**egoluz**

ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345  
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behea  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

**ITURGINTZA**

**ONGI** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522  
Faxa: 943 254 523

ongi@ongiengoibar.com  
www.ongiengoibar.com

**ARROZTEGIA**

**iraolagoitia**

aroztegia - altzariak - etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara  
943 756 112  
636 497 485

www.iraolagoitia.com

**LEIHOAK**

**LODOSO  
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
lodosof@gmail.com

943 743 490

**ITURGINTZA**

**SANTANA**

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea  
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905  
santanaiturgintza@gmail.com

**ARROZTEGIA**

**IMAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
943 531 471  
609 054 978

carpinterialmar@hotmail.com



**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8  
943 740 512  
Faxa: 943 743 565

bienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasa.com  
943 740 279

**ARROZTEGIA**

Arroztegia Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar  
687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

**ERREFORMAK**

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

Ermosano kalea, 15 behea - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019  
605 713 168

**IGELTSERITZA**

**A.Garate**

Era guzietako  
igeltsaritza lanak  
egiten ditua


angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

**ARROZTEGIA**

**BIENA S.L.**  
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus

Argitaratzailea:



BARREN

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzkaltzaren Topagunea

Babeslea: Laguntzaileak:

ELGOIBAR  
UDALA  
ARINDARMENTOMENDARO  
1983

Gijuzkoako Foru Aldundia

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR - 943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloe Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Juan Luis Mugertza

Idazlea

## Ilea



***“Adats luzeak modan zeuden, eta asko gaizki moldatzen ginen ispilu aurrean horrenbesteko buruhaustea ematen zigun arraia artez egiten”***

Gaztetan, ileak protagonismo handia zuen gure buruan, baina gerra handia ematen zigun. Adats luzeak modan zeuden, eta gutako asko gaizki konpontzen ginen ispiluaren aurrean horrenbesteko buruhaustea ematen zigun ilearen arraia artez egiten, eta, behin baino gehiagotan, belarrien ertzetan rapela hasitako ile arinak itxuratzen. Izan ere, orduko borroka lekuetara (Oraiko, Pelus, Dantzari...) joateko, eta sasoikoak (Travolta, Beatlesak...) imitatzeko, ile itxuroso izateak gehigarria zuen, eta ilehoria baldin bazen..., atera kontua! Eta hori oso nabarmen gelditzen zen batzuek plantak egiteko, praken atzeko poltsikoetan orraziaren kirtena begi-bistan izaten zutenean. Halarik ere, denak ez ziren horren nabarmenak. Batzuk diskretuagoak ziren, nagusiagoak. Hauek orrazia diru-zorroan eramaten zuten egoerak eskatzean bakarrik erabiltzeko. Gainontzekook nahikoa genuen amets gaiztoetan aurre ikusten genuen Yul Brynner bezalakoak ez izaten. Nik orduan oso ile gantzatsua nuen, eta egoeraren larria ikusita, amari baten batek emandako errezeta probatzea erabaki nuen, mirariak egingo zituelakoan-edo, eta txinbo jaboia erabiltzen nuen burua garbitzeko. Jaboiaren bitsari eragiteko palangana batean ura, eta ozpina nahasten nituen. Oso metodo ona zen, baina bazuen bere albo-kaltea. Izan ere, koipearena arintzen bazuen ere, zalgiarena areagotu egiten zuen, eta jertsearen sorbaldaren beltzean pausatutako elur-maluta itxurako puntuak ez ziren oso erakargarriak gustukoarekin berriketan hasteko.

Gero, farmazietan, dendetan, horretarako propio asmatutako txanpuak erakuslehoetan ikusten hasi ginen, baina ordurako berandu zen; urdintzen hasitako ileak, edota distira hartutako soilguneek jakinaren gainean jarri gintuzten gure kaskamotzak zer nolako itxura hartuko zuen epe laburrera. Gainera, horrenbesteko ahaleginak egin ostean, oso fede txikia genuen horrelako botiketean, eta ohitzea, onartzea beste erremedioirik ez genuen izan; eta ez dakizue, harrez geroztik, zer ondo konpontzen garen orraztu gabe, eta zer nolako autoestimua dugun, ile-tximen ardura kenduta.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## Zubietako erraustegiaren kudeaketa zorigaiztokoa

Aste honetan, Gara egunkariaren bitartez jakin dugu Zubietako erraustegiak 86 geldialdi eta abiatze jasan zituela martxan egon zen lehen urtean. Zehazki, 53 izan ziren lehen errausketa-lerroan, eta beste 33 bigarren errausketa-lerroan. Europako araudiak ezartzen du mota horretako instalazioek etengabe funtzionatu behar dutela, eta urtean geldialdi bat edo bi egin behar direla gehienez ere mantentze-lanetarako.

Geldialdiei eta abiarazteei buruzko datua Gorka Bueno teknologia elektronikoko EHuko irakasleak eta jasangarritasunean adituak eta Carlos Arribas fisikari eta industria-kutsaduran adituak egindako azterlan batean jasota dago. Azaldutakoaren arabera, ondorio horretara iritsi dira Lakuako Gobernuko Ingurumen Sailburuordetzari planteatutako gaien erantzunak jaso ondoren, GHK-k (Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa) joan den martxoan sail horretan aurkeztutako 2021eko jardueraren Ingurumena Zaintzeko Programaren (PVA) txostenetik abiatuta. Txostenean ikusten da arazo tekniko larriak daudela labeekin, batez ere 2. lerrokoarekin.

Adi beraz, erraustegiaren geldialdi eta abiatze kopuru hori ez da akats tekniko hutsa. Horrek guztiak ingurumen-ondorio larriak ditu, gas-isuriak eta osagai kutsatzaileak eragiten ditu. Eta ez ahaztu lehen Zaldibarrera eramaten ziren hondakinak orain Zubietan errausten ari direla, hondakin arriskutsuak.

Hondakinen balioa lortzeko sistema gisa sustatu zen, eta elektrizitatea sortzea ia anekdotikoa da. Herriaren borondatearen gainetik pasatuz eraiki zen, eta ondorengo kudeaketak ere zorigaiztokoa izaten jarraitzen du.

A.I.

## OSASUN GIDA

### Gidan agertzearen onurak!

22€

hilean

22 €ren truke, hileroko, zure osasun zentroaren eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

12

aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiko ikusiena.

4.885

ale astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Alto Agirre Kullurgunea, 3. .3. ezk  
20870 ELGOIBAR

# Elgoibarko Udalak eta Aldundiak Errezabal egoitza eraikitzeko hitzarmena sinatu dute

Ane Beitia Elgoibarko Udaleko alkateak eta Maite Peña Gipuzkoako Foru Aldundiko ongizate diputatuak Errezabal egoitza eraikitzeko hitzarmena sinatu dute. Errezabal egoitzaren obra eta kudeaketa 2022ko bigarren sei hilabetean lizitatuko dute, 21 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin, eta obrak 2023an hasita aurreikusi dute. Egoitzak 110 eta 130 plaza artean izango ditu.



## 14 urtez gorakoek ikasteko gela izango dute Mendaron, udaletxean

EH Bildutik egindako eskaerari erantzunez, Udalak gela bat egokitu du udaletxeko hirugarren solairuan 14 urtez gorakoek ikasteko lekua izan dezaten. Aste barruan egongo da zabalik. Gehienez hamar lagunentzako lekua egongo da, eta mahai bakoitzak ordenagailuarentzako karga puntua eta wifi konexioa izango ditu. Orduategia: 8:00-14:00 / 17:30-20:00

EH Bildutik esan dute eskertzen dutela eskaera aintzat hartu izana, baina halako ekimen bat martxan

jartzeko, lehenengo interesa duen jendearekin jarri behar dela harremanetan, "zerbitzua euren beharretara ahalik eta gehien egokitzeko", eta ez dutela hori egin denaren konstantziarik. Era berean, hamar mahai baino gehiago beharko liriatekeela eta zerbitzua 14 urtez gorakoentzako izan beharrean 12 urtez gorakoentzat izan beharko litzatekeela nabarmendu dute. Zerbitzua udaletxea zabalik dagoen orduetara mugatzea ere ez dute ondo ikusten.

## 100 urte bete ditu Manuela Zorrillak, etxeakoak eta agintariak alboan dituela



Zapatuan 100 urte bete zituen Manuela Zorrillak. San Lazaro egoitzako egoiliarra da Zorrilla, eta zapatuan etxeako eta gertuko lagunez gain udal agintariak ere joan zitzaizkion bisitan egoitzara. Ane Beitia Elgoibarko alkateak eta Blanca Larrañaga Gizarte Ongizateko zinegotziak Udalaren oroigarria eta lore-sorta oparitu zizkieten eta argazkia atera zuten gero denek elkarrekin.

## Osasun Batzordetik ez dietela erantzun salatu du 24/7 Plataformak

Martxoaren 23an, Elgoibarren bildutako 5.501 sinadura aurkeztu zituen Legebiltzarrean 24/7 Plataformak, Elgoibarko anbulatorioan larrialdi zerbitzua eta 24 orduko etengabeko arreta berreskuratzeko eskatzeko. Sinadurak erregistratzearekin batera, plataformak Legebiltzarreko Osasun Batzordean agertzeko eskaera egin zuen. Bi hilabete baino gehiago igaro dira orduetik, baina, eta erantzunik ez dutela jaso salatu dute. Normalena dagoeneko agerraldi hori eginda egotea litzatekeela esan dute horren harira eta beldur direla "Legebiltzarrean eta batzordean gehiengo dutenak ideien eztabaida saihesten" ari ote diren. Esan dute herritar asko ari zaizkiela gerturatzen sinadurekin zer gertatu den galdezka, baina nabarmendu dute erantzunik ez dutela eurek. Hala ere, azpimarratu dute borrokan jarraituko dutela 5.501 herritarrek adierazitako borondatea errespetatzen.

## Zortzi euskal herritarretatik bakarrak egiten du euskaraz kalean, 2021eko kale neurketaren arabera

**H**izkuntzen erabileraren kale neurketaren emaitzak aurkeztu zituen joan zen astean Soziolinguistika Klusterrak, eta emaitzek erakusten dute euskararen kale erabileraren datu orokorrek ez dutela gorabeherarik izan azkeneko bost urteetan (%12,6), baina eremu geografiko, adin-talde eta sexuen arabera ondorio adierazgarriak badaude. Soziolinguistika klusterrak egin duen zortzigarren ikerketa da hau, eta 215.396 elkarriketa egin eta 603.497 solaskide behatu zituzten lagintzat hartutako 145 udalerritan.

Ondorio nagusia zera da: Euskal Herriko kaleetan behatu zuten zortzi pertsonatik bakarra ari zela euskaraz (2016ko datu bera da). Lehenengo neurketari erreparatuz gero, beraz, 1,8 puntu hazi da erabilera azken 32 urteetan (%10,8). Eremu geografikoari dagokionez, Gipuzkoan entzuten da euskara

gehien (%30,6), azken hamarkadan erabilerak bi puntu behera egin duen arren. Behera egin dute balioek Nafarroan (%5,9) eta Ipar Euskal Herrian (%4,9) ere. Txanponaren beste aldean, duela bost urte baino euskara gehiago entzuten da Bizkaiko (%9,4) eta Arabako kaleetan (%4,9), eta Araban, inoiz neurtu den erabilerarik altuena izan da 2021ekoa.

### Erderak nagusi

Zortzi herritarretatik euskaraz bakarrak egiteak erakusten du "hizkuntza handienek indar, eragin eta erabilera oso handia" dutela. Gaztelania da nagusi Hego Euskal Herrian, eta frantsesa, Ipar Euskal Herrian. Era berean, eta martxoan Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak argitaratutako txostenaren bidetik, bada beste ondorio aipagarri bat ere: eremurik euskaldunenetan behera egin duela euskararen kale erabilerak.

### Elgoibarko Udalak eta Debemenek hitzarmena sinatu dute 2022rako



Elgoibarko Udalak eta Debemenek hitzarmena sinatu dute 2022ko nekazaritza eta abeltzaintza azokak antolatzeke eta kudeatzeko. Batetik, Udalak 34.000 euro bideratuko ditu zeregin horretara, eta bestetik, arekak garbitzeko eta landa-bideak sasiz garbitzeko lanak ere arautu dituzte hitzarmenean. Era berean, Elgoibarko Udalak Debabarreneko Landa Garapeneko Elkarteko bazkide gisa ordaindu behar duen 2022ko kuota ere zehaztu dute.

### Murala egin dute Herri Eskolan kirolean emakumeen parte-hartzea sustatzeko



Kirolean emakumeen parte-hartzea sustatzeko murala sortu dute Berdintasun Sailak eta Herri Eskolak lankidetzan. 2018an, Kalamua Guraso Elkartetik Eskola Kirolean nesken parte-hartzea sustatzeko txostena landu zuten, Ainhoa Azurmendi aholkulariaren gidaritzapean, eta han jaso zuten murala egitea. Egitasmoa Janire eta Leire Rodriguez ahizpek gidatu dute, eta Herri Eskolako LH6ko ikasleen eta Maialen eta Aroa Etxeberria ahizpen lankidetzarekin margotu dute.

## Zigilatze-lanak amaituta, behin betiko itxi dute Urruzunoko zabortegia




Urruzunoko zabortegi zaharraren lehenengo gunea 2013an itxi zuten, eta ia, 2021eko uztailen, Mankomunitateak Aranbeltz ibaiaren ondoan, Elgoibarko Albitxuri industrialdetik gertu, kokatzen zen bigarren eremua zigilatze lanei ekin zien. Bigarren eremu horretan ez zuten hondakinik jasotzen 2007az geroztik, baina euri-urak zabortegiaren ingurutik igarotzen ziren eta lixibiatuak (kutsatutako urak) sortzen ziren, Aranbeltz errekarara iritsi zitezkeenak. Amaitu dituzte, baina, zigilatze-lanak eta behin betiko itxitzat eman dute zabortegia. Zigilatze-lanak amaitu ondoren, hormigoizko zola bat eraiki dute, eremua Mankomunitateko materialen biltegi gisa erabiltzeko, kamioiak eta furgonetak eroso moldatu daitezzen beharrezko logistika lanak egitean. Obren kostu totala 1.441.117 eurokoa izan da, BEZa barne.

### Egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko epea zabaldu dute

Zabaldu dute adinekoen egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko programarako izena emateko epea. Eskakerak honako egunetan egin beharko dira Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailean, aurrez hitzordua eskatuta (943 741 050). Abuztuko egonaldietarako: ekainaren 8a baino lehen; iraileko egonaldietarako: uztailaren 13a baino lehen. Hamabost eguneko egonaldiak izango dira eta Donostiako Txara 2 egoitzan egingo dira.

### Sare sozialen eta pornografiaren arteko harremana aztertuko dute ekainaren 6an, Elgoibarren



Sare sozialek eta pornografiak gazteen garapenean duten eraginari buruzko hitzaldia antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Emoki elkarteak ekainaren 6rako. Berdinak al dira sare sozialen bidez sortzen eta garatzen diren harremanak? Nolakoa da pornografiaren eragina erotikan? Galdera horiei eta sor daitezkeen besteei erantzuten ahaleginduko dira solasaldian. Hitzaldia Kultur Etxeko sotoan izango da, ekainaren 6an (astelehena), 17:30ean. Antolatzaileek jakinarazi dute hitzaldia gaztelaniaz izango dela, eta interesatuek izena eman behar dutela aurrez, 943 741 050 telefono zenbakira deituta edo bestela [gazteria@elgoibar.eus](mailto:gazteria@elgoibar.eus) helbidera idatzita.

### Iñaki Goitia Lucasen hiru mikrokontakizun aukeratu dituzte antologia liburu baterako

Iñaki Goitia Lucas Mendaroko liburuzainak idazitako hiru mikrokontakizun Quarks Ediciones argitaletxeak argitara emandako *Los locos del microrrelato* antologian gehitu dituzte. Pablo Caverio Garciak aukeratu ditu antologiarako lanak eta egungo 90 idazleren mikrokontakizunak batu ditu. Quarks Ediciones argitaletxeak laburrean idatzitako lanak balioan jarri eta ezagutaraztea du helburutzat, oraindik badirelako mikrokontakizunak literatura generotzat onartzen ez dituztenak ere. Liburua doan deskarga daiteke Internetetik.

## Inazio Bereziartua Musika Eskola Udalaren Kultura Sailari atxikitutako zerbitzua izango da aurrerantzean

**G**aur egun EMUDAFEk, Elgoibarko Dantza eta Musika Fundazioak, kudeatzen du Inazio Bereziartua Musika Eskola, baina Udalbatzaren azkeneko osoko bilkuran musika eskolaren kudeaketa lehiaketa publikora ateratzea erabaki zuten -Bozketan abstenitu egin zen Elkarrekin Podemoseko zinegotzia, eta alde bozkatu zuten gainerako alderdietako ordezkariak-. Inazio Bereziartua Musika Eskola Udalaren zerbitzua bihurtuko da, Kultura Sailari atxikitutakoa, eta hori arautuko duen hasierako ordenantza da osoko bilkuran onartu zutena.

Inazio Bereziartua musika eskola 1984ko maiatzean sortu zuten, musika irakasteko oinarrizko zentroak arautzeko 1980ko xedapen baten babesean. 1990. urtean, Udalak Elgoibarko Udal Musika Fundazioa sortu zuen, eta geroztik Udalaren titulartasuneko musika-eskola da, eta Udalaren dirulaguntza izenduna jasotzen duen elkarte batek kudeatzen du. Aldaketa honekin, baina, aurrerantzean Udaleko gobernu-organismoek hartzen dituzten erabakien mende egongo da,



bai arlo ekonomikoan zein administratiboan. Horretarako, musika eskola udal irakaskuntzako zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza idatzi dute, eta eskolaren barne-funtzionamendua arautzen duen barne-araudiaren hasierako dokumentua ere onartu dute.

### Balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatu dute Elgoibarren

Udalak eta Debegesak antolatu dute lehiaketa, "Elgoibarko ingurumen-kalitatea eta estetika hobetzen laguntzeko", eta lehiaketarako izena emateko epea zabalik dago dagoeneko (Ekainaren 10a da azken eguna). Apuntatzeko, Arreta bulegoan (HAZ) eta esku-orrietan dagoen QRa bete beharko da eta NANA erakutsi beharko da derrigor. Sarietarako dagoeneko, herri mailako bi sari izango dira,

biak 200 euroko bonoak, Txankakua elkarteko saltokietan erabiltzeko. Horrez gain, eskualdeko balkoi eta leiho onena ere sarituko dute, 250 euroko sariarekin. Informazio gehiagorako: 943 741 050 / [arreta@elgoibar.eus](mailto:arreta@elgoibar.eus). Epaimahaiak ekaineko azken astean ikusi eta baloratuko ditu balkoi eta leihoak, lore apaintzea ederrenak saritzeko. Eibarren, Ermuan eta Mutrikun ere egingo dute lehiaketa.

### Arranbideko etxeen atzeko horma egonkortzeko lanak hasi dituzte Mendaron

2021. urteko amaieran eta 2002ko hasieran lur-jausiak atzeman zituzten Arranbideko etxeen atzeko aldean eta horma hori egonkortzeko beharra ikusi du Mendaroko Udalak. Obra Tesinsa SA enpresari esleitu dio Udalak eta bi hilabeteko epea izango du enpresak egin beharrekoak egiteko. Aurrekontua 81.557,37 eurokoa izango

dela jakinarazi dute Udaletik, BEZ barne. Azaldu dutenez, ezpondak egonkortzeko sistema malgu bat instalatuko dute, erresistentzia handiko eta deformazio txikiko mintz malgu batez osatutakoa, 14 mm-ko 2 kable horizontalez indartutakoa. Hiruzuloka exekutututako bulonatu pasiboarekin konbinatuko dute gero.



# CYNTHIA PAZMIÑO

Moda diseinatzailea

✍️ Ainhoa Andonegi / 📷 Jairo Berbel

Cynthia Pazmiñok (Granada, 1985) umetatik izan du arte diziplina desberdinetarako zaletasuna. Etxean ikasi zuen puntua egiten eta lagun batek 7 urte zituela erakutsi zion makrame egiten. Marraztea ere gustuko du, eta akuarela teknika erabili izan du gehienbat. Baina berari sortzea gustatzen zaio, batez ere. DBHn zebilela artisautza izan zuen ikasgai, eta orduan piztu zitzaion sortzeko benetako zaletasuna. Batxilergo artistikoa egin zuen ondoren, eta han ikasitako gauza guztien artetik, diseinua aukeratu zuen. Iruñean egin zituen Moda Diseinatzaile ikasketak, eta "mundu berri bat" deskubritu zuen. Gaur egun moda jasangarrian dihardu, ehunak eta oihalak tinta naturalekin tindatzen. Bihar egingo du bere lanaren erakustaldia Makina Erremintaren Museoan, eta besteak beste, indigo kolorearekin shibori teknika nola lantzen den erakutsiko du.



## “Koloreekin magia egitea modukoa da tindatze prozesua”

### Nondik datorkizu modarako zaletasuna?

DBHn artisautza ikasgaia geneukan aukeran, eta beste batzuk frantsesa aukeratu zuten moduan, nik artisautza aukeratu nuen. Umetatik izan dut arterako zaletasuna, baina nire benetako harremana artearekin DBHn hasi zen. Ondoren, Ignacio Zuloaga institutuan Batxilergo artistikoa egin nuen. Arte diziplina desberdinak ezagutu nituen Batxilergoan, baina marraztea ere gustuko dudanez, moda diseinatzaile ikasketak egitea erabaki nuen. Egia esanda, ez naiz sekula izan moda gehiegi jarraitzekoa, baina diseinua betidanik gustatu izan zait. Iruñeko unibertsitatean egin nituen ikasketak, eta ikasketa amaierako proiektua tindaketa naturalaren inguruan egin nuen.

### Ikasketak bukatu dituzu. Zertan diharduzu orain?

Lau urteko ikasketak izan ziren, eta lau urte

horietan gauza desberdinak probatzeko aukera eduki nuen. Nire izaerarekin bat zetorren alorra aukeratu nuen: jasangarritasuna modan. Alor horretan lan handia dago egiteko, eta gainera, aspektu askotan aplikatu daiteke. Berrerabili daitezkeen materialak aprobetxatzen saiatzen naiz. Biomodari buruzko ikastaro bat ere egin nuen beka bati esker, eta biomaterialak egiten ikasi nuen, material organiko eta konbutxarekin.

### Zertan datza tindaketa naturala?

Tindaketa prozesuak kutsadura sortzen du gehienetan, batez ere ekoizle handiek epe zehatzekin lan egiten dutelako. Tindaketa naturala askoz motelagoa da, baina gero eta artisau gehiagok erabiltzen dute, ekoizpen txikiak egiteko. Niretzat askoz artistikoagoa da. Makina Erremintaren Museoan egin nuen nire lanaren erakustaldi bat, eta oso pozik geratu zen jendea.

Gauza berri pila bat nituen eginda, eta lan horiek erakusteko ere aprobetxatu nuen. Azken batean, telak tindatzeko erabili nuen ura bioplastikoa egiteko ere erabili nuen, eta gero, ura eta laka pigmentuak atera nituen. Oso interesgarria izan zen saioa. Egia esan, tindaketaren mundu hau guztia oso interesgarria da; niri izugarri gustatzen zait. Mundu berri bat deskubritu dut, eta nire lagunei askotan esaten diet, koloreekin magia egitea modukoa dela hau guztia. Material bakoitzak kolorea nola hartzen duen ikustea izugarria da. Nik gehiena kotoia tindatzen dut, baina zetarekin hastea ere gustatuko litzaidake.

### **Zein osagai erabiltzen dituzu tindaketarako?**

Landareekin hasi nintzen, baina erabiltzen ditut baita ere kipula azala, aguakatea... zikintzen duen edozerk balio du tinta lortzeko. Ehunak edo oihalak tindatzeko prozesuan urarekin egosten da dena, eta gero ur hori murriztuz, paperean margotzeko tinta ere lortu daiteke.

### **Artisautzatik bizimodua egiteko aukerarik ikusten duzu?**

Motela da produzitzeko modua, baina nik uste dut baietz, bizi daitekeela artisautzatik. Jendeak gero eta gehiago estimatzen du artisauen lan artistikoa, eta iruditzen zait ematen duela bizitzeko

*"Landareekin hasi nintzen, baina erabiltzen ditut baita ere kipula azala, aguakatea... Zikintzen duen edozerk balio du tinta lortzeko"*

aukera. Lortu behar dena da publikoarengana iritsiko den produktuarekin asmatzea, eta produzitzen ematen duzun denboraren arabera prezioa jartzea produktuari. Momentuz azoketan postua jartzeko produktuak egiten ari naiz, baina egunen batean gustatuko litzaidake nire marka propioa sortzea. Momentuz oihalak tindatzen ditut, eta batez ere telazko poltsak eta arroparen batzuk egiten ditut. Nik egiten dut prozesu guztia: ehuna lortu, diseinatu, oihala moztu, josi eta tindatu. Hasiberria naiz eta aurten ez naiz Trinitateetako azokan egongo, ez daukadalako oraindik produktu askorik. Badakit ez dela sektore erraza, baina saiatu nahi dut nire afiziotik ofizioa egiten; nire ametsa da. Ez badut lortzen, badaukat aukera beste zerbait egiteko, beste ikasketa mota batzuk ere egin nituelako, baina nire ilusioa artisaua izatea da. Gustatuko litzaidake nik diseinatu egitea, gero enpresa batek jostea nire produktuak





*"Jendeak  
gero eta gehiago estimatzen du  
artisauen lana"*

eta nik tindatzea. Modu horretan beste maila bateko produkzioa lortuko nuke, baina poliki joan behar naiz.

**Nolakoa da tindaketa prozesua?**

Lehenengo oihala prestatu behar da tindagaietatik kolorea hartzeko. Horretarako mordentea eman behar zaio, finkagarri bat. Gero egosi egiten da, eta lehortzen utzi. Behin kolorea hartu duenean, kolore hori aldatzeko aukera ere badago. Oso prozesu polita da, nik izugarri gozatzen dut. Nire sukaldea ikustekoa izaten da lanean nagoenean! Kontuz ibili behar izaten naiz, tindak jatekoarekin ez nahasteko, tindatzeko erabiltzen ditudan osagai batzuk ezin direlako jan.

**Biharko tailerrean, zer erakutsiko duzu?**

Tindatzeko modu desberdinak daude, eta bihar, shibori teknika erakutsiko dut. Indigo tindagaia da, urdina, eta shibori, tindatzeko teknika. Lehenengo tailerrean egosteko prozesuarekin lortzen diren koloreak erakutsi nituen, eta indigoaren tindaketa teknika egosi gabekoa da. Han erakutsiko dut nola prestatzen den tindatzeko errezeta, baina hori ezingo dugu momentuan erabili. Nik eramango dut nire errezeta prestatua, erabiltzeko prest. Shibori teknikan oihalari formak ematen zaizkio, tolesdurekin edo sokekin lotuta, eta horren arabera hartzen du kolorea. Ez du oihal guztiak kolore berbera hartzen. Magia egitea bezalakoa da. Ni ilusionatuta nago, eta oso pozik nabil. Aurrerantzean tintak edo pinturak ere lortu nahi

ditut, oihaletan estanzazioak egiteko eta papera margotzea ere gustatuko litzaidake. Materiaren prozesu zirkularra lantzea nahiko nuke.

**'Impossible black' izena du zure markak. Nondik dator?**

Cian, magenta eta horia kolore primarioak proportzio berean nahastuta beltza lortzen dela dio teoriak. Baina saiatu arren, oso zaila da beltz hori lortzea. Ni saiatu izan naiz, eta nire ikaskideak ere bai, eta sekula ez da beltz tonu berbera lortzen. Horrek inspiratu ninduen, eta niretzako helburu bat da beltza lortzea, kolorearen dominioaren perfekzioa izango litzateke. Hiru kolore primarioetan beltza dago, eta beltzaren barruan zirkulo kromatikoko kolore guztiak daude. Irakasle batek esaten zigun inspirazioak lanean harrapatu behar zaituela, eta niri horrela etorri zitzaidan. Ikasketa amaierako lana egiten ari nintzen, eta nire helburua zen jendeari eragitea kolorearen pertzepzioa aldatzea. Konplikatu da eta historia oso luzea dauka *Impossible black* izenak, baina uste dut izen polita dela. Oraindik ez naiz hasi komertzializatzen, baina iritsiko da eguna.



# FESTA ERRALDOIA

✍ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Jendetza batu zuen erraldoien topaketak zapatuan, Elgoibarren. Goizean goizetik festa giroa nabari zen herriko kaleetan: Mauxitxa txarangak esnatu zituen kaleak goizeko dianarekin, eta eguerdian dultzaineroekin batera egin zuten kalejira. Txantreako, Bergarako, Bilboko eta Elgoibarko erraldoiak Kalegoen plazan zeuden, herritarren begirada guztiak bereganatzen, eta arratsaldekoa oroimenean gordetzeko izan zen: Kalejira erraldoia egin zuten konpartsa guztiek elkarrekin, eta festa amaitzeko denek batera egin zuten dantzan plazan. Argazki gehiago eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)



## Aire libreko margo lehiaketarekin hasiko dituzte bihar Trinitate Jaietako ekintzak

**B**i urteko etenaren ostean, bueltan dira Trinitate Jaiek. Festa nagusia ekainaren 11-12ko asteburuan izango bada ere, bihar hasiko dituzte ekintzak, Egur Arte Eskolak antolatutako aire libreko margo lehiaketarekin. 18 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. 9:00etatik 10:00etara eraman beharko dituzte euskarriak elizako arkupeetara zigilua jartzeko, eta 13:00etatik 14:00ra bitartean aurkeztu beharko dituzte lanak. 14:30ean egingo dute sari banaketa, elizako arkupeetan.

Hurrengo asteburuan, berriz, ostiralean hasiko dira ekitaldiak. Musika eskolako ikasleen dantzaldia izango da arratsaldean, eta gauean Maraca Diablo musika taldeak kontzertua emango du sotoan, Sinuösek antolatuta. Asteburuan berriz, artisau eta ganadu feriak, nagusien eta umeen danborradak, txistularien



eta Mautxitxa txarangaren kalejirak eta erraldoi eta buruhandien kalejira izango dira, besteak beste.

Mendaron ere ospatuko dituzte Trinitateak ekainaren 10etik 13ra, eta besteak beste, ikastolako umeen bertso saioa, Bizi Poza txarangaren kalejira, herri kirolak eta Arnok antolatutako zirku tailerra izango dira.

### 'Miñan' liburuari buruzko solasaldia, Amets Arzallusekin, hilaren 8an



*Miñan* liburua migrazio-abentura baten kronika da, eta 2019an idatzi zuten Ibrahima Balde Konakrytarrak eta Amets Arzallus lapurtarrak. Ibrahima Balderen beraren bizitzaren kronika da nobela, hark ahoz eta Amets Arzallusek letraz idatzia. Liburuak Zilarrezko Euskadi Saria irabazi zuen 2020an. Ekainaren 8an Elgoibarrera etorriko da Arzallus, eta liburuaren gaineko hitzaldia emango du, Aita Agirre kulturguneko areto nagusian. 18:30ean hasiko da, eta euskara hutsean edo elebitan izango da, bertarutzen den publikoaren arabera.

### Gemma Monrealen ikasleen lanen erakusketa Kultur Kafean, hilaren 15era arte

Gemma Monrealek bere ikasleen lanak jarri ditu ikusgai Aita Agirreko kultur kafean, eta hilaren 15era arte egongo dira ikusgai. 8tik 20 urtera arteko 42 ikasleren lanak dira, olio koadroak gehienak, baina badaude marrazkiak ere bai, margoekin



 Jairo Berbel

zein arkatzarekin eginikoak. Taberna irekita dagoen bitartean bisitatu ahal izango da erakusketa. Gemma Monreal margolaria harro dago bere ikasleek eginiko lanez, eta esan du Elgoibarren sendo dagoela margolarien harrobia. Herritarrei eskatu die erakusketa ikustera joateko, ikasleei aurrera jarraitzeko babesa emateko.

## Mendaroko Udalak 15.500 euroko laguntza emango dio Elgoibarko Izarrari



**M**endaroko Udalak eta Elgoibarko Izarrak 2022rako lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, eta horren baitan, 15.548 euro jasoko ditu aurten euskara elkarteak, BARREN Komunikazio proiektua Mendaron zabaltzeko. Iñaki Arregi Mendaroko alkateak eta Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentek sinatu zuten hitzarmena. Euren berbetan, hitzarmenaren helburua da Mendaroko Udalaren eta Elgoibarko Izarraren arteko lankidetzarako "eremu egonkor bat ezartzea" Mendaroko udalerraren barruan, Elgoibarko Izarrak BARREN aldizkariaren inguruko jarduerak garatu ditzan, euskara sustatzeko.

### Udako ikastaroak, Debabe Udal Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegiak udako euskara ikastaroa eskainiko du, ekainaren 27tik uztailaren 21era. 80 orduko ikastaroa izango da, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuak ekainaren 21era arteko epea dute. Informazio gehiago 943 742 731 telefonoan.

### Jon Lizarralde omendu zuten, dantzari bakarlarrien erakustaldian

Aurrekua ikasten edo txapelketetan diharduten Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako dantzariak bakarkako erakustaldia egin zuten plazan, joan zen barikuan. 10 eta 18 urte bitarteko 14 dantzari hartu zuten parte, eta amaieran, irakasle izan duten Jon Lizarralderi ezustekoa eman zioten. Dantza erakustaldiko aurkezle lanak egin zituen Lizarraldek, eta azken dantza aurkezten ari zela mikrofonoa kendu zioten eskuetatik: "Ez dira orokorrean urte errazak izan inorentzat. Hala ere, horren aurrean moldatzen eta dantzan jarraitzen jakin izan dugu, besteak beste, Jon beti izan dugulako zain Merkatu Plazan, dantzan ikasi eta irakasteko prest". Lore sorta bat oparitu zioten, eta hunkituta jaso zuen irakasleak. Arantxa Aginakori ere eskerrak eman zizkieten, txapelketan zehar emandako animoengatik.



### Musikariak bakarkako emanaldiak, Ameikutz musika eskolan

Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasleek bakarkako emanaldiak egingo dituzte datozen egunetan. Aste honetan trikitiakoen eta pandero joleen emanaldiak egin dituzte. Ekainaren 7an piano, biolina eta gitarra ikasten ari direnen erakustaldiak izango dira; ekainaren 9an txistua, tronboia, tronpeta eta akordeoia ikasten ari direnena, eta ekainaren 13an, bateria ikasleena. Saio guztiak San Agustin kulturgunean izango dira, 19:00etan. Horrez gain, ekainaren 16an eta 17an ikasturte amaierako kontzertuak egingo dituzte, Herriko Enparantzan.

## Ikastolaren Eguna ospatuko dute bihar Elgoibarren

**I**kasturteari amaiera emateko, Ikastolaren Eguna ospatuko dute bihar, goizetik eguerdi aldera arte. 10:30ean abiatuko dira Kalegoen plazatik kalejiran trikitilari eta buruhandiekin, eta ikastolara iritsitakoan adin tarte bakoitzeko umeentzako tailer eta jolasak prest egongo dira. Altxorren bila, eskulanak

eta herri kirolak izango dituzte, besteak beste. 12:30ean Niala magoaren ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da, eta 13:30ean dantza lehiaketa egingo dute. Goiz guztian zehar tonbola, aurpegia margotzeko txokoak, guraso eta umeen arteko jolasak, fotokola... egongo dira.

### Aktore ezagunen azalean sartu dira Taupadakoak 'Zinemakopan'



*Zinemakopa* antzezlanaren taularatu zuen Taupada antzerki taldeak barikuan Herriko Antzokian, eta Elgoibarko aktoreak Espainiako eta atzerriko

aktore ezagunen azalean sartu ziren. Musika eta dantza ikuskizuna izan zen, eta aktoreak nahiz ikusleak, gustura geratu ziren emanaldiarekin.

### Kiribil itzuliko da gaur, Maalako parkera



Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika aisialdi taldearen eskutik Maalako parkera itzuliko da gaur Kiribil barraskilo erraldoia. Hizkuntzaren transmisioan eragitea du helburu egitasmoak, eta guraso eta umeen parte-hartzea sustatuko dute. 17:00etatik 19:00etara hainbat jolas egingo dituzte denek elkarrekin.

### Judas Argarate taldeak kontzertua emango du bihar, sotoan



Rodisa enpresako hainbat langilek sortutako taldea da Judas Argarate: Markel Iraola, Joseba Gofii, Ekaitz Vegas eta Hodei Otegi dira taldekideak. Bihar, kontzertua emango dute Kultur Etxeko sotoan, 19:00etan. Hainbat talde ezagunen bertsioak joko dituzte, eta beraiek sortutako bederatzi kantu ere bai.

### Inazio Bereziartua musika eskolako jaialdia gaur, Herriko Antzokian

Inazio Bereziartua musika eskolan hasi dira dagoeneko kurtso amaierako jaialdiekin. Gaur Herriko Antzokian egingo dute emanaldia 19:00etan, eta hilaren 9an rock eta big band taldeen txanda izango da. Maalan egingo dute saioa, 19:00etan.





*Ana Galarraga, Nagore Ruiz de Escudero, Leire Garate eta Ane Garmendia.*

# ZIENTZIA BADA EMAKUMEEN KONTUA

 Ainara Argoitia  
 Udaleko Berdintasun Saila

Etorkizuneko lanpostuen %80an zientzia eta teknologiako konpetentziak beharko direla diote gero eta ahots gehiagok, baina gaur egun oraindik, neska gazteek ez dute beren burua zientzia egiten ikusten, eta horren atzean zer egon daitekeen aztertu zuten joan zen maiatzaren 19an, Lilan, 'Zientzia bada emakumeen kontua' mahai-ingurura batu zirenek. Lau emakume zientzialari aritu ziren jende aurrean; elgoibartarrak hiru: Leire Garate Rodrigo industria diseinuko eta produktu garapeneko ingeniaria (1988); Ane Garmendia Konde industria antolakuntzan ingeniaria (1982); Nagore Ruiz de Escudero Zapico telekomunikazio ingeniaria eta telematikan espezialdua (1983), eta hiru horien gidari lanetan, Ana Galarraga Aiestaran zientzia dibulgatzailea Elhuyarren (Zarautz, 1970).

Aurrez, baina, Elgoibarko Ipuin Lehiaketan saritu dioten ipuina irakurri zuen Herri Eskolako LH5eko ikasle Nora Leonardo Oñederrak, Senegaldik Elgoibarrera iritsi, euskara ikasi eta nagusitan itzultzaile automatikoa asmatuko duen neskato baten ingurukoa. Fikziotik abiatu eta errealitatearen gordinaz hitz egiten amaitu zuten, eta han bildutakoaren laburpen bat da gaur hona ekarri duguna.



*Nagore Ruiz de Escudero, Leire Garate eta Nora Leonardo.*

**2019-2020. urteetan ingeniari-tza, industria eta eraikuntza alorreko graduak edo zikloak aukeratu zituztenen artean %29,1 bakarrik ziren emakumezkoak.**

**Leire:** urteetan ikusi dugu datu hori, baina ingurura begiratuta esango nuke kopurua handitzen ari dela.

*Informatikan jaitsi egin da. Bioingeniaritzan igo, baina adibidez Kimikan jaitsi egin da eta jaitziera hori kimikari Ingeniaritza Kimikoa izena eman ziotenean gertatu zen batez ere.*

**Nagore:** Nire pertzepzioa, berriz, da Informatikan jaitsi egin dela. Telematikako lehen promozioa izan ginen gu Arrasaten eta ez dakit zergatik, baina erdiak inguru neskak ginen. Hala ere, lan-munduan gero ez ditut ikusi emakumeak. Kongresuetan ere atzamarrekin kontu daitezke, eta denok ezagutzen dugu elkar. Azkeneko hamar urteetan perfil teknikoko neska bakarra sartu da CodeSyntaxen eta ez da nahi ez dugulako izan, ez daudelako baizik.

#### **Zergatik hasi zineten zientzien munduan?**

**Nagore:** Nahi nuke esan bokazioz hasi nintzela, baina ez. Nik nota onak neuzkan, ikasle ona nintzen, zientzia gustatzen zitzaidan eta ingeniari-tza egitea pentsatu nuen. Nik uste dut makina-erremintaren bailara honetan jende askoren aukerak ez diola bokazioari erantzun.

**Ane:** Ni ere antzera. Ikasle ona nintzen, neba neukan Ingeniaritza egiten eta bide errazena horrek ematen zuen. Akordetzen naiz, baina, amak

*"Telematikako lehen promozioa izan ginen gu Arrasaten eta erdiak inguru neskak ginen. Hala ere, lan-munduan gero ez ditut ikusi emakumeak"*

**- Nagore Ruiz de Escudero Zapico -**

zer esan zidan Ingeniaritza egin nahi nuela esan nionean: 'Ziur zaude, Ane? Hori gizonen mundua da e!'. Gure ama andereñoa izandakoa da, eta hori esan zidanean, dudarik ez nuen egin: aurrera!

**Leire:** Niri gehiago gustatzen zitzaidan umeen mundua, baina etxean ikusten nuena beste hau zen. Aitak makina-erremintako enpresa dauka eta zapaturu joaten nintzen tailerrera. Neba ere diseinu ingeniari-tza ikastetik zetorren eta inkontzienteki markatu ninduen. Eta animatu nintzen, eta gero, gustatu! Arrasatera joan nintzen, eta han, lehenengo urtean, gehiago ziren gizonak, mekanikako ikasleak eta diseinukoak batera geundelako, baina bigarren urtean banatu zituzten espezialitateak, eta diseinuan gehiago ginen emakumeak. Aitak niri Elektronika ikasteko esaten zidan, lan asko zegoelako, baina niri oso zaila iruditzen zitzaidan, ezer handirik jakin gabe.

*Ikerketek erakusten dute emakumeen kasuan etxeko giroak sekulako eragina duela beren burua tradizioz gizonetzkoenak izan diren alorretan ikusteko.*

### **Emakumezko izateagatik tokatu zaizue diskriminazio goerarik sufritzea edo ikustea gertuan?**

**Ane:** Enpresan ez, baina bezeroekin dugun tratuan, lengoian, bai, garbi. Bilera batean sartu eta gizonezkoei *ingeniero Javier* esatea eta niri *señorita Ane* oso ohikoa da.

**Leire:** Ez naiz baztertuta sentitu sekula.

**Nagore:** Nik ere lantokian ez dut sekula sentitu, baina lan munduan, badago. Bazterketa esplizitua ez, inork ezin duelako onartu hori gaur egun, baina inplizitua, bai, askotan, eta ez gizonezkoengandik bakarrik. Orokorra da, eta guk ere egiten dugu. Sentitu izan dut bilera batean proiektu bat lotzen egon bezero batekin eta gauza konkretu baterako lankide gizonezko bat sartu denean, ni bigarren plano batera pasatzea. Eta sentitu dut hori, bezeroa emakumezkoa izan denean ere. Ohartu gabe egiten ditugun gauzak dira. Ziurrenik nik neuk ere arreta handiagoa jarriko diot hitzaldi batean gizon bati emakume bati baino.

### **Zientzia arlotan Espainiako ikerketa zentroetako ikertzaile guztiak biltzen dituen grafikan ikusten da urtetik urtera nola gutxitzen diren emakumeak bidean. Zergatik uste duzue gertatzen dela?**

**Nagore:** Faktore asko izango dira, baina nik uste dut jaitsiera oso lotuta dagoela adin bati eta ardura batzuei; jaitsiera ematen den garai horretan, jendea ezkondu egiten da, umeak izaten dituzte... eta oraindik zenbait ardura emakumeenak dira hemen. Gizonek konpromiso horiek askatasun handiagoz hartzen dituzte. Emakumeak hartuko ditu erabaki batzuk, ziurrenik zentzuzkoagoak direnak, baina bere ibilbide profesionalean eten bat suposatuko dutenak. Profesionalki hazten jarraitzeko karga gehiago dauzka emakumeak.

**Ane:** Dudarik gabe. Gizarteak guri jarri dizkigun zaintza-ardura horiek hor daude atzean gure erabaki guztietan. Gizonek ere izango dituzte, bai, baina beste maila batean. Bestetik iruditzen zait gizonekin lan egiten dugun emakumeak oso autoexijenteak ere bagarela geure buruekin. Nolabait, ez dugu nahi izaten gure errendimendu horretan emakume edo ama garenik igartzetik. Eta iruditzen zait harlauza handia zaigula hori. Esango nuke gizarte hau ez dagoela prest sortu dugun munstruo hau mantentzeko. Umeak ekarri eta guraso biak lanean egote hau ez da jasagarria. Ez dakit zein den eredu egokia, baina hau ez. Umeak zaindu behar ditugu eta gero gurasoak, eta sistema honi eutsi ezinda gabiltza denok. Desastre batean bizi gara.

### *"Gure enpresan berdintasun batzordea sortu zen duela urtebete inguru, hein batean derrigorra delako 50 langiletik gorakoetan, baina egia da gero eta ozenago entzuten direla kopuruak berdintzearen aldeko ahotsak*

**- Leire Garate -**

Legeak aipatuta, gauza bat esan nahi nuke amatasunaren inguruan. Jakingo duzuen bezala, Metaleko hitzarmena ez da irakaskuntzakoa: guk ezin dugu lau hilabeteko haurdun gaudela baja eskatu eta ehuneko ehuna kobratu. Orain, zortzigarren hilabetea eska genezake baja, lumbagoak jota gaituela arrazoitu beharrik gabe, baina nik esango dizuet nire lehen haurdunaldian haserre pasatu nituela aurreneko bi hilabeteak, sentitzen nuelako sistema hau mantentzeko pertsona bat nekarrela mundura, eta hala ere, bajako lehenengo bi egunetan ez nuela kobratu eta ondorengoetan, erditzen nintzen bitartean, soldataren %75a jasoko nuela. Urgentziazkoa da emakumeak jartzea legeak sortzen.

### **Ezagutzen al duzue ala tokatu al zaizue hori saihesteko diskriminazio positiboko neurririk?**

**Nagore:** Nik ez ditut ezagutzen. Segurua da gure enpresan egingo zela diskriminazio positibo hori langile berri baten kontratazioan, emakumeen curriculumak baletoz. Ni, pertsonalki, diskriminazio positibo hori egitearen aldekoa naiz.

**Leire:** Gure enpresan berdintasun batzordea sortu zen duela urtebete inguru eta momentuan diagnostikoa egiten ari dira, baina uste dut oso lagungarria izango dela etorkizunean. 50 lagunetik gorako enpresetan derrigorra da, eta egia da derrigorra delako sortu zela hein batean, baina egia da, era berean, gero eta ozenago entzuten direla emakumeen eta gizonen kopuruak berdintzearen aldeko ahotsak; baita gizonen artean ere. Kontzientzia hori badago.

**Ane:** Gertatzen dena da gure eskualdean bestelako enpresak gehiago direla. Hemen, batetik, enpresa txiki eta ertain asko dago, eta bestetik, daude multinazionalak eta kooperatibak eta azken bi horietan normalizatuago daude amatasun-baimenak, bajak eta halakoak, baina enpresa



txikietan norberak ahal duena egiten du. Ez dut ulertzen derrigortasun hori ehun laguneko enpresei bakarrik aplikatzea. Iruditzen zait enpresa txiki eta ertainetako zuzendaritza-taldeek ere sentitu behar dutela betebeharrak hori dutela eta landu behar dituztela bideak egingarri egiteko.

*Diskriminazio positiboaren inguruan 2016an Australian egindako ikerketa bateko emaitzak ekarri zituen Galarragak. Aztergaia zera zen: zergatik ez zuten funtzionatzen diskriminazio positiboko neurriek emakumezkoekin. Bizitzako alorrak lautu sailkatzen zituzten: arlo pertsonala, profesionala, soziala eta familiarra, eta ondorioa garbia zen: Gizonezkoek horietako alor batean gora egiten zutenean, besteetan ere gora egiten zutela. Emakumezkoetan, aldiz, horietako bakar batean gora eginez gero, besteetan zigortu egiten zituzten. Ama izanez gero, lanean zigorra, eta lanean mailaz igoz gero, etxean gaizki pertzibitzen zuten.*

#### **Aldaketarik igarri duzue?**

**Leire:** Nik bai. Gehiago gara orain. Ez gara asko emakumezkoak, baina bai gero eta gehiago.

**Nagore:** Gure enpresan, lehen, emakume bakarra nintzen alor teknikoan eta orain bi gara! Beharbada egin beharko genuke beste zerbait emakumeak erakartzeko, baina nik emakumezkoen curriculumen falta igartzen dut. Dena den iruditzen zait legeak behartzen badu emakumeak ere egotera, emakumeek eurek ere ikusiko dutela lekua izan dezaketela noizbait eta errazago animatuko direla zientziak ikastera. Erreferenteak egotea, enpresa batean sartu eta

emakumeak ikustea ere, oso garrantzitsua da lekua duzula sentitzeko. Eta baita enpresako elkarriketatzailea emakumezkoa izatea ere, lan bila doana emakumea denean.

**Leire:** Eskoletara emakume zientzialariak gerturatzea ere lagungarri da erreferenteen harira diozun horretarako. Gure enpresara eskoletatik bisitan datozenean saiatzen gara gidaria emakumezkoa jartzen.

**Denok dugu estereotipatua zientzialariaren irudia; hainbestearino zeuen buruei zientzialari deitzea ere arrotza egiten zaizuela.**

**Nagore:** Ni iruzurtia sentitzen naiz oraindik zientzialari erreferente esaten didanean norbaitek. Zientzialariak beste batzuk direla pentsatu ohi dut, jende inportantea, zerbait asmatu duena, ez ni, eta guk hori sinisten dugun bitartean zaila dago hemen ezer aldatzea.

**Ane:** Nik berdin bizi dut. Ingeniaritza eredu jakin batzuekin lotzen dugu, baina hain da zabala Ingeniaritza eta hain askotarikoak ingeniariak... Eskoletara joan izan naizenetan saiatu naiz beti hori nabarmentzen: askotariko ingeniariak gaudela, eta emakumezkoak ere bagaudela.

**Leire:** Iruditzen zait inork ez duela garbi Ingeniaritza zer den ikasle garaian.

**Nagore:** Bai. Farmazilaria, sendagilea, kimikaria... gutxi-asko denoi etortzen zaigu burura zer egiten duten horiek, baina ingeniaria aipatu eta galdu egiten gara. Eskoletara joaten garenean oso nabarmena izaten da hori: ingeniariak zer egin dezaketen ez dago hain identifikatuta. Iruditzen zait horregatik ez duela inork bokazioz aukeratzen ingeniarietza egitea.

### **Iruditzen zaizue emakumeoi, itxura aldetik ere, gehiago eskatzen zaigula gizonei baino?**

**Leire:** Nik entzun izan dut gona motz batekin lanera ez joateko, baina ez dakit idatzitako araua den edo den gehiago gure iruditerian dagoen hori errepikatzea. Dena den, egia da idatzita egon beharrik ere ez dagoela araua izateko. Orain, ateak irekitzeko eguna izan dugu enpresan eta makinak erakustera joan diren lankide emakumeak prakak jantzita joan dira, eta gustatu zait.

**Ane:** Esango nuke kulturarekin lotutako kontua ere badela hori. Nik sentitu dudana gehiago da gizonezko batek badakiela zer jantzi behar duen itxura ona emateko, eta aldiz, guk, ez beti. Batzuetan ez dut jakitzen formalegi noan, edo informalegi, kolore gehiegi daramadan edo ez...

### **'Zientzia boterea da. Feministok ezin dugu alde batera utzi', zioen Uzuri Albizu Mallea matematikariak. Ados al zaudete?**

**Nagore:** Ni guztiz ados nago. Zientziak markatzen du etorkizuna eta beste erabakigune guztietan egon behar dugun bezala, zientzian ere egon behar gara emakumeak.

**Leire:** Bai, eta gizonek ere egon behar dute emakumezkoenak jotzen diren arloetan, zaintza-lanetan-eta. Nik uste dut beti dela aberasgarria bietatik egotea leku guztietan, bizipen ezberdinak izan ohi ditugulako eta bizipenek ikuskera ezberdina dakartelako.

**Ane:** Zientzia ezagutza da, eta ezagutza boterea da, baldin eta aplikatzen bada. Eta justu, zientziaren aplikazioa da Ingeniaritza. Teknologiak, farmazeutikak, armagintzak... mugitzen dute mundua eta garbi dagoena da hor gizonezkoak bakarrik baldin badaude edo gizonezkoak gehiago badira, euren interesen arabera egingo dituztela gauzak. Zer ikertzen den eta zeinen mesedetan ikertzen den erabakitzeke guneetan egon beharra daukagu beraz.

### **Zein da zuek ateratzen duzuen ondorio nagusia?**

**Ane:** Aurreko astean irakurri nuen Gipuzkoan ingeniariak behar direla eta beraz baikorra naiz, hortik ondorioztatzen dudalako emakumeok ere lekua izango dugula. Sistemari egin diezaiokegun ekarpena behintzat handia da.

**Nagore:** Ados, baina nik ez daukat hain argi Gipuzkoan ingeniariak behar dituztela diotenean emakumez ere ari diren. Nik ez dakit zeinek eta

*"Teknologiak, farmazeutikak, armagintzak... mugitzen dute mundua eta garbi dagoena da hor gizonek bakarrik baldin badaude edo gehiago badira, euren interesen arabera egingo dituztela gauzak"*

**- Ane Garmendia Konde -**

nola egin behar duen, baina dakidana da aurretik hasi behar dela hemen lanean, 12 urterako neskek baztertu dituztelako zientziaren alor asko. Grafikek argi erakusten dute emakumeak badaudela zientzia egiten, baina oso espezialitate jakinetan, zaintzari lotutakoetan: Medikuntzan, Farmazian...

*Ikerketek erakusten dute 6 urte betetzerako ikusten dutela neskek beren burua jenio figuratik urrun. Esan nahi da gehiago identifikatzen direla langile izatearekin, langile aplikatua izatearekin, sormen handikoak izatearekin baino. Datu bat: etorkizuneko lanpostuetan %80 zientzia eta teknologia konpetentziak beharko direla jakina da, baina gaur egun neskek ez dute beren burua zientzia egiten ikusten.*

*Beste kontu bat: Pandemiak azkeneko bi urteetan zientzia-argitalpenetan izan duen eragina aztertzeke EHUUn egindako ikerketak berretsi du nazioartean egindakoek erakutsi dutena: Pandemian, etxetik lan egin den garaian, askoz ikerketa gehiago argitaratu dituztela gizonezkoek emakumezkoek baino, zaintza-lanak emakumeen gain egon direlako. Gainera, argitaratu diren lan gehienak osasunari lotutakoak izan dira, hain justu emakume gehiago dauden espezialitateetakoak. Horri lotuta Mari Luz Esteban antropologoak agertutako kezka plazaratu zuen Ana Galarragak. Pandemia garaian, zientzialari emakume asko ikusi ditugu pantailan egunero, azalpenak ematen. Estebanek galdetzen du, baina, zenbaterainokoa den ona diskriminazio positiboa aplikatuta jendeurrean eman den irudi hori, interpreta daitekeelako oker eta pentsatu zientziaren munduan parekatu direla emakumezkoak eta gizonezkoak, nabarmen gutxiago direnean emakumezkoak oraindik ere. Horregatik uste du Galarragak esplizitatu eta erakutsi behar direla datuak eta horren harira dio datuak ez direla hemen beste lekuetakoak baino hobek.*



## 150 lagun batu zituen Igeriketa Egunak

**P**andemiagatik bi urtez egin gabe egon ostean, joan den zapatuan egin zuten berriro ere Igeriketa Eguna, Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta. Igerilekuak handitu zituztenetik aurrenekoa izan da gainera. Antolatzaileek "balorazio oso ona" egin dute. "Haur kopuru handiak hartu zuten parte, eta ikastetxeei eskerrak eman nahi dizkiegu, eskola-umeak parte hartzera animatzeagatik. Lehen aldiz antolatu dugu horrelako ekimen

bat igerileku berrian eta primeran irten zen dena. Haurrek uretan gozatzeko aukera izan zuten", esan dute. Aurtengo Igeriketa Egunak 6 eta 14 urte bitarteko 150 umetik gora batu zituen, bi txandatan banatuta. Igeriketa eskolako kideek erakustaldia eman zuten, estilo desberdinak menperatzeko egiten duten lana ezagutzera emateko. Gainerakoek 25 eta 50 metroko probetan parte hartzeko aukera izan zuten, "nahi zuten eran".

## LaRoitakoek bigarrenkoz jokatu dute erronka, baina formatua aldatuta

Ikusmin handia sortu zuen iaz LaRoita kuadrillako Iker Odriak eta Antxon De La Aradak elkarren aurka jokatu zuten kirol erronkak, eta bigarren ekitaldia martxan dutela aurreratu dute. "Iazkoa horren ondo irten zen, eta gu guztiontzat egun gogoangarria izan zela ikusita, urteroko ohitura bihurtu nahiko genuke erronka hau", azaldu du Iker Odriak. Berak irabazi zuen iaz erronka, baina aurten ezin izango du parte hartu. Uztailaren 2an, zapatua, egingo dute eta bi beharreen, hiru izango dira aurtengo lehiakideak: Antxon De La Arada, Ioritz Leiaristi eta Ivan Rogel. Iazko proba bera jokatu dute: Mutrikuko portua, Elgoibarko plaza eta Karakate lotuko dituzte triatloian: igerian, bizikletan eta saltaka. Egun osorako egitaraua prestatzen ari direla azaldu dute. Eta iaz moduan, porra egin eta errifak saltzeko asmoa ere badute.



## Haundik Iruña Okan jokatu du Hiruko Finala

**D**omekan jokatu du Haundik Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Errege Koparako sailkapen fasea, Arabako Iruña Oka herrian, eta taldea animatzera joan nahi dutenentzako autobusa ere antolatu du C.D. Elgoibarrek. Haundik Dinamo San Juan (Bizkaia) eta San Viator (Araba) taldeak izango ditu aurkari Hiruko Finalean. Elkarren aurka 45 minutuko partidak jokatu dituzte 17:00etatik 20:00ak bitartean. Irabazleak Espainiako Errege Kopan lehiatzeko sailkatzea lortuko du. Talde horrek maila berean diharduen aurkaria -Espainiako talde bat- izango du Errege Kopako lehen kanporaketan.



## Gipuzkoako Kopa irabazi du C.D. Elgoibarko gizonen bigarren taldeak



Azken jardunaldiko azken minutuetan lortu zuten erregionalak bere multzoko sailkapeneko lehen postuan amaitzea, eta hala, beste multzoko lehen sailkatuaren aurka jokatu zuten Gipuzkoako Kopako finala, erregional mailako talderik onena zein zen erabakitzeko. Elgoibartarrek Segura

Goierrri izan zuten aurkari Tolosako Usabal futbol zelaian jokatu zuten finalean, eta 6-2 gailendu zen Elgoibar. Hortaz, amaiera ezin hobea eman diote denboraldiari, Gizonezkoen Gorengo Mailarako igoera lortzeaz gainera Gipuzkoako Kopa irabazita.

## Uxue Etxeberria gimnastak urrezko eta brontzezko domina bana irabazi ditu Euskadiko txapelketan

Gimnasia erritmikoaren Euskadiko Amateur txapelketa jokatu zuten aurreko domekan, Durangoko Landako Gunean, eta bi domina eskuratu zituen Ipurua taldea ordezkatu zuten Uxue Etxeberria gimnasta elgoibartarrak, urrezkoa bata eta brontzezkoa bestea. Bakarkakoan mazoekin aritu zen eta hirugarren puntuaziorik altuena eskuratu zuten bere ariketarekin. Taldekakoan Nidia Olasolorekin batera aritu zen Etxeberria, jubenil B kategorian, eta lehen postua eskuratu zuten. Etxeberriak mazoak erabili zituen eta Olasolok pilota elkarrekin egin zuten ariketan.





## Kirola eta jolasak, Mendaroko txoko guztietan

**A**rno Guraso Elkartek antolatuta, Kirol Eguna egin zuten Mendaron, maiatzaren 28an. HH2tik LH6ra arteko ehun ume inguruk parte hartu zuten goiz osoan zehar egin zituzten jolasetan. Bost txoko banatu zituzten antolatzaileek. HHko haurrentzako txokoa, Betiko Jolasen txokoa, Oreka txokoa, Bola Janean ibiltzeko txokoa eta Sokekin jolasteko txokoa, eta taldetan banatuta, batetik bestera ibili ziren haur guztiak, HHkoak izan ezik. Izan ere, HHkoentzako jolas guztiak Etxeberrri plazan egin zituzten. Ibili ziren motorretan, salto-saltoan, korrika eta saiatu ziren eskuak atzera lotuta zuhaitzetik dindilizka jarri zizkieten platanoak jaten, bai eta bikoteka jarrita eta begiak itxita zituztela, bikotekideari txokolatetan bustitako bizkotxoak ahoan sartzen ere. LHko ikasleak, berriz, herriko bazter batetik bestera ibili ziren orduerdiko txandetan. Martzela Osoro plazan, Herriko Enparantzan eta Mendarozabalgo plazan denetariko jolasak egin zituzten eta elkarrekin dantzan amaitu zuten goiza izena emandako umeek eta haien ondora batutako gurasoek Herriko Enparantzan. Dantzan hasi aurretik, baina, txorizo eta patata-tortila ogitartekoak ere banatu zizkieten hurrei, indarrak hartzeko. (Argazki gehiago eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus))





## Gipuzkoako Kopa: Gaurve eta Alcorta, txapeldun, eta Salento Gelati, txapeldunorde

**D**enboraldian egindako lanaren fruitua jasotzeko sasoian gaude, eta Sanloko taldeen garaikurren uzta oparoa izaten ari da. Bi titulu eta bigarren postu bat eskuratu dituzte joan den asteburuan. Senior emakumeen Gaurve Asesores taldeak jardunaldi bat jokatzeko faltan lortu du Gipuzkoako Kopa irabaztea, aurkari gogorrak izan dituzten arren: Aiala Zarautz, Ereintza, Bera Bera, Egia eta Aloña Mendi. Era berean, Alcorta Forging Group senior gizonen lehen taldeak ere irabazi du Gipuzkoako Kopa. Usurbil menderatu zuten finalean, 30-21 emaitzarekin, joan den domekan Zumaiaiko Lubaki kiroldegian jokatu zuten neurketan. Kadete nesken Salento Gelati Elgoibar taldeak ere egun eta leku berean jokatu zuen Gipuzkoako Kopako finala. Sanloko taldeak Aiala Zarautz izan zuen aurkari finalean eta 17-15 irabazi zuten zarautzarrek. Azkenik kadete nesken Neurri taldeak Gipuzkoako B Liga txapelketa irabazi du.



### Markakoa izan da aurtengo Zegama-Aizkorri mendi maratoia

Zegama-Aizkorri mendi maratoia marka guztiak hautsiz itzuli zen domekan. Lasterketaren historiako markarik onenak egin zituzten irabazleek, Kilian Jornet kataluniarrak (3.36.40) eta Nienke Brinkman herbeheretarrek (4.16.42). Brinkman-ek 17:44 minututan jaitsi zuen Maite Maiorak 2017an ezarri zuen errekorra (4:34:27). Bi elgoibartarrek hartu dute parte aurtengoan. Gorka De La Horra sailkapen nagusiko 60. postuan sailkatu zen, 4.29:46ko denborarekin eta Ioritz Conde 150. postuan sailkatu



zen 5.35:01eko denborarekin. Publiko aldetik ere, inoizko ediziorik jendetsuena izan dela azaldu dute antolatzaileek, eta bat dator De La Horra. Laugarrengez hartu du parte eta sekula baino ikusle gehiago zeudela iruditu zaio. Barikuan, berriz, VIII. Zegama-Aizkorriko Kilometro Bertikala jokatu zuten espezialitateko munduko saltakari onenek. Oriol Cardona (32:59) kataluniarra eta Emelie Forsberg (42:26) suediarra izan ziren azkarrenak eta 12. postuan sailkatu zen Ainhoa Lendinez, 48 minutu eta 34 segundoko denbora eginda. Bere marka pertsonala proba honetan.

**LANA****Eskaerak**

Etxeak garbitzeko prest nago.  
Esperientzia daukat.  
642 716 984

Adinekoak zainduko nituzke,  
etxeko langile moduan.  
642 395 031

Adinekoak zaintzeko prest nago,  
etxeko langile moduan edo  
orduka. Titulua daukat.  
631 425 686

Etxeko garbiketa lanak egiteko  
prest nago. Esperientzia daukat.  
643 490 069

Garbiketa lanak egiteko eta  
adinekoak zaintzeko prest nago.  
Esperientzia handia daukat.  
632 079 087

Adinekoak zaintzeko prest nago,  
orduka. Titulua daukat eta  
euskaraz dakit. Garbiketak eta  
etxeko lanak ere egiten ditut.  
626 490 986

**Eskaerak**

Elgoibarko enpresa batek  
jendaurreako eta biltegirako  
persona bat behar du, arduratsua  
eta gogotsua. Ordenagailuko  
gutxieneko ezagutzak eta  
gidabaimena izatea baloratuko  
dira. Helbide honetara bidali behar  
da CV-a: [hornikuntza@gmail.com](mailto:hornikuntza@gmail.com)

**ETXEBIZITZAK**

Bi pertsonantzako apartamentua  
alokagai Cadizen, uztaileko.  
653 733 457

**BESTELAKOAK**

Eskuetan gozo ibilitako  
katakumeak oparitzen dira.  
688 649 596

Eraztun bat aurkitu dut,  
ezkontzakoa dirudi.  
612 462 120

Txakurkumeak oparitzen dira.  
688 642 761

Merkatu txikiko iragarkiak  
bi astez argitaratzen ditugu.  
Salmenta eta alokairu iragarkiak  
ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak:  
18€ (alokairua) - 22€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 18€ .  
Bestelakoak: 10€.  
Iragarkia erretratua jarriz gero,  
6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak:  
15€ (alokairua) - 20€ (salmenta).  
Autoak saltzea: 15€.  
Bestelakoak: 8€.  
Iragarkia erretratua jarriz gero,  
5€ gehiago ordaindu behar dira.



administradores

Consejo Técnico de Colegios  
de Administradores de Sociedades  
Económicas y de Administración  
Laboral y Comercial



Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen ardu-  
raduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gi-  
puzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako  
ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zen-  
bakia: 749

**660 969 679**

**[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**

**Banatu den bikote etxejabe bati tokatzen zaio komunitateko  
presidente kargua hartzea eta normalean ez dira gure erakinean  
bizi. Jakin nahi nuke ea presidente kargua erakinean bizi den  
norbaiti pasa diezaiokgun.**


Etxebizitza edo lokal bat irabazpidezko ondasun gisa bi ezkontideena  
bada, legeak bien esku jartzen du ondasun horien kudeaketa eta  
antolaketa. Hortaz, bietako edozein izendatu dezakete presidente. Legeak  
espresuki azaltzen du presidentearen izendapena derrigorrezkoa dela.  
Kargua hartu behar duenak uste badu zeregin horretan jardutea galarazten  
dioten arrazoiak dituela, bide judizialek eskatu ahal izango du karguan  
ordezkatzeari, ekitate prozedura baten bidez. Hala ere, hasieran, izendatu  
dutena karguan egon beharko da ordezkaria izendatzen duen behin betiko  
ebazpena iritsi arte. Hau karguan egongo da behin-behinean, batzordeak  
berria izendatu arte.

**Ondorioa: Egoera pertsonalak direla-eta (esaterako,  
normalean erakinean ez bizi izatea), jabe jakin batzuk  
presidente kargutik kanpo uzten dituen edozein estatutu-klausula  
berdintasun juridikoaren oinarriaren aurkakoa da eta ez du  
ezertarako eskubiderik ematen. Beste kontu bat da, presidente  
izendatzen duten horrek ulertu behar duela egon daitezkeela  
arrazoi objektiboak besteak kargua ez bete ahal izateko.  
Kasu horretan formalki kudeatu behar da aurrez adierazitako  
prozedura.**




**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Karla**, zure urtebetetzeari. Familia guztiaren partez.



Zorionak, **Lander!** Maiatzaren 31n 8 urte bete zenituen! Muxu pila bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Leire**, bihar 4 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa eta muxu handi bat etxeko denon partez!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



Komertzioekin lan egiten dugu  
(etxeko ehungintzekin  
eta jantziekin)  
**TARIFA BEREZIAK!**

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?  
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.  
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,  
edozein ehun konpondu ahal izateko:

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOYEAK,  
LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978  
[www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



## KONTSULTATEGIA

“  
*Minbizia eta  
ahoko osasuna*  
”

Gaur, minbiziak gure aho-hortzetako osasunari nola eragiten dion eta gure hortzoietan duen eragina nola leundu dezakegun azalduko dugu, baita laguntza non bilatu dezakezuen ere.



Minbizirako tratamendu askok gure ahoari, hortzei eta listu-guruneiei eragiten dieten albo-ondorioak dituzte. Ondorio horien ondorioz, pazienteek zailtasunak izan ditzakete jaterako orduan, hitz egitean, mastekatzean edo irenstean. Guzti horiei aurrea hartzeko edo arintzeko, hortzak leun-leun eskuilatzea eta hortz-haria erabiltzea gomendatzen da. Baita, alkohola, tabakoa, testurak eta muturreko zaporeak gure dietatik saihestea. Azkenik, garrantzitsua da dentistarengana maizago joatea, arazoak azkarrago antzemateko, eta gaixotasunaren tratamenduan sor daitezkeen zalantzak zure dentistarekin kontsultatzea.

Minbiziari eta aho-hortzetako osasunari buruz gehiago irakur dezakezue hurrengo esteka honetan: <https://bit.ly/3Jlmggb>

### ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
iyd@dentalaldaz.com

**943 366 377**

### 3 BARIKUA

**17:30** Kiribil. Maalako parkean.

**18:30** Egur arte tailerrekoen lanen erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan, hilaren 18ra arte.

**19:00** Musika Eskolako ikasleen kurtso amaierako kontzertua. Herriko Antzokian.

### 4 ZAPATUA

**9:00-14:00** Kaleko margo lehiaketa. Egur Arte Tailerrak antolatuta, 18 urtetik gorakoentzat. Sari banaketa 14:30ean egingo dute, elizako arkupeetan.

**10:30** Ikastolaren Eguna. Kalegoen plazatik joango dira kalejiran ikastolara eta han eguerdira arteko ekintzak izango dituzte.

**11:30** Indigo eta shibori teknika tailerra. Cynthia Pazmiñok eskainiko du, Makina Erremintaren museoan.

**19:00** Kontzertua: Judas Argarate. Kultur Etxeko sotoan.

### 6 ASTELEHENA

**18:30** Hitzaldia: 'Doluaren prozesu naturala'. Itsaso Dominguez psikologoak emango du. Kultur Etxeko sotoan.

### 8 EGUAZTENA

**18:30** Solasaldia, Amets Arzallusekin 'Miñan' liburuaren inguruan. Aita Agirreko areto nagusian, Sartu-Zabaltzenek eta Udalak antolatuta.

### 9 EGUENA

**19:00** Kurtso amaierako rock eta big band kontzertua. Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta, Maalako parkean.

### 10 BARIKUA

**19:00** Zine foruma: 'En 80 dias'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Haizeak antolatuta, Lilan.

**19:00** Dantza jaialdia. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, Kalegoen plazan.

**23:00** Kontzertua: Maraca Diablo. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.



**Eta, Debabarrenean zer?**

**Dantzari Eguna (Eibarren)  
Ekainak 10, 19:30ean**

Eibarko Klub Deportibok eta Kezka Dantza Taldeak antolatuta, dantzari eguna ospatuko dute Eibarren, Untzaga plazan. 19:30ean hasiko da ikuskizuna.



## ETXEBERRIA EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

**Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**

**Botika ordutegiak:** 09:00-13:00 7 16:00-20:00

**GUARDIAK:** Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

3 BARIKUA  
Egunez  
Garitaonandia  
Iluntzean  
Garitaonandia

4 ZAPATUA  
Egunez  
Arriola  
Iluntzean  
Arriola

5 DOMEKA  
Egunez  
■ Arriola  
Iluntzean  
Arriola

6 ASTELEHENA  
Egunez  
Fernandez  
Iluntzean  
Arriola

7 MARTITZENA  
Egunez  
■ Yudego  
Iluntzean  
Yudego

8 EGUAZTENA  
Egunez  
Oruesagasti  
Iluntzean  
Yudego

9 EGUENA  
Egunez  
■ Barrenetxea  
Iluntzean  
Barrenetxea

10 BARIKUA  
Egunez  
Ibañez  
Iluntzean  
Arriola

■ Fernandez:  
Herriko enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gauzez:  
22:00-09:00  
Esther Mendinueta Berastegui  
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)  
943 820 106



Jaso nahiko al zenituzke  
**ELGOIBARKO** eta **MENDAROKO**  
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko,  
sartu [barren.eus](http://barren.eus)-en eta  
egin klik 'Nor Garen' atalean.  
Bertan topatuko dituzu azalpen guztiak.



**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**GRUNDING GKN26845FXN CONBI-A**

A  
T  
G  
E



- Ez da frost, du-cooling
- 185 cm-ko altuera
- Aztarnen kontrako herdoilgaitza
- 366 litroko edukiera

**659 €**

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.




Aste honetako erretratu zaharra Gloria Odriak ekarri du BARRENEKO bulegora. Bere senideak ageri dira argazki honetan, Elgoibarko Egi baserri atarian. Gerezioz bat zeukaten baserri aurean, eta haren azpian atera zuten familia-erretratua. Argazkiko guztiak hilda daude. Gogora ditzagun zeintzuk diren:

**Zutik:** Francisco Arriola, Eugenia Arriola eta Jose Arriola. **Eserita:** Antonia Soraluze eta Juan Jose Arriola.



### *Jose Santiago Rodriguez Eito*

2022ko maiatzaren 31n hil zen, 95 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





## *Maria Espada Gutierrez*

2022ko maiatzaren 6an hil zen, 73 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure irribarrearen magiak betiko argituko gaitu.  
Orain, zeruan distira handiena duen izarra zara.  
Maite zaitugu.***

Zure seme-alabak, bilobak,  
anai-arrebak eta gainerako senideek




## *Sebastian Uncilla Agirre*

2022ko maiatzaren 16an hil zen, 87 urte zituela.

***Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.  
Ez zaitugu ahaztuko.***

Egotoki Elkarteak



## *Raul Gil Osoro*

2022ko maiatzaren 21ean hil zen, 82 urte zituela.

***Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.  
Ez zaitugu ahaztuko.***

Egotoki Elkarteak



I.URTEURRENA

## *Enrique Eguren*

2021eko ekainaren 4an hil zen, 94 urte zituela.

***Beti gurekin/zurekin***

Etxeakoak





**TXANKAKUA**  
ELGOIBARKO MERKATARIAK



**1** Erosi      **2** Boletoa eskuratu      **3** Irabazi

*Erosi  
herriko  
denda  
txikietan.*

*Erosketa  
egin ondoren  
eskuratu  
zure txartela,  
eta zorte on!*

*Elgoibarko  
Aizu ostalaritza  
elkarteko  
tabernetan  
doan  
eskuratu ahal  
izango duzu  
kafe bat.*

*Elgoibarraren  
bizia, erosi  
herriak irabazi*

TXANKAKUA  
ELGOIBARKO MERKATARIAK



ELGOIBAR  
IKOLA  
AYUNTAMIENTO

*Euskadi, auzolana, bion omnia*



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARIETZA  
ETA KONSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO